

laister berri



Bessaingo udala

164 | URTARRILA 2007

001

AURKEZPENA

002

UDAL
EUSKALTEGIA_1

003

UDAL
EUSKALTEGIA_2

004

ANTZERKI
GARAIA

005

ESKOLA
AGENDA 21

006

HAUR ZINEMA

007

GOIENIZ

010

EKINTZAK

laister berri


AURKEZPENA

ERREGEEN ZAMALKADA

Uteroko ohiturarekin jarraituz, aurten ere, hilaren 5ean, gauean Errege Magoak gure etxeetara iritsiko dira opariz beteta. Baina aurretik, gure herriko haurrekin egoteko atsedena hartuko dute.



Eguerdiko 12etan Loinazko San Martin plazara gerturatuko dira atzerapenarekin dabiltzanen gutunak jaso-tzeko, eta bertan eskaerak entzungo dituzte.



Arratsaldeko 6ak inguruan herriko hainbat kaletan ibiliko dira beraien karrozetan, morroi guztiak inguruan dituztela. Guztiak liluratu ondoren plazara gerturatuko dira umeei azken aholkuak emateko, opariak bana-tzera abiatu aurretik.

Aurreko urteetan bezala, herriko gazte boluntario talde batek eta Txilibuthof taldeak hartuko dute guztiok zamalkada honekin disfrutatzeko behar diren lanen ardura.



laister berri

Diseinua:

ah_comunicación

Maketazioa:

ah_comunicación

Erredakzioa:

ah_comunicación

Publizitatea:

ah_comunicación

Imprimaketa:

Gráficas

San Martín C.B.

Lege Gordailua:

SS-654/96

Erredakzioa

helbidea:

Martina

Maiz 3/2.

bulegoa

T 943 882 257

F 943 027 639

E ah@clickah.com

Beasaingo Kultura Batzordeak aldizkari honen 6.500 ale banatzen ditu hilabetero Beasaingo postontzietan.

Eragilea:

kultura saila



Beasaingo udala

Aurkezpena_001



Zer da Mintzalagun egitasmoa? Euskal Herriko lurralde guztietan abian dagoen egitasmoa da, eta baita Beasainen ere. Gaur egunean, 40 mintzalagun egitasmo daude, eta, bertan, 1.800 lagun inguru ari dira. Beasaini dagokionez, une honetan, euskara erabiltzeko elkartzen diren zortzi mintzatalde ditugu martxan (22 lagun, guztira).

Zertarako da Mintzalagun egitasmoa? Euskara praktikatzeko, euskara maila hobetzeko, euskara erabiltzen ohitzeko, edota, euskara ikasten ari direnei prozesuan laguntzeko edota euskara plazaratzen laguntzeko.

Parte hartu nahi al duzu? Hiru baldintza baino ez dituzu bete behar:

- 1.- Euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila edukitzea.
- 2.- Astean behin, ordubeteko tarte eskaintzea egitasmoari.
- 3.- Hamar saiotan elkartzeko gutxieneko konpromisoa hartzea.

Beraz, parte hartu nahi izanez gero, zoaz Beasaingo Udaleko Euskara zerbitzura, deitu 943 028063 edo 943 028100 telefonoetara edo mezu bat bidali honako helbide honetara: euskera@beasain.net. Eman ezazu orain izena eta hasi urte berriarekin talderen batean!!!



Egizu euskaraz!
Nahi baduzu...
egingo duzu

¡Comunícate en euskera!
Si quieres...
puedes

**BEASAINGO UDAL
EUSKALTEGIA**

Loinazko San Martin Plaza
Tfnoa.: 943 028100.
zuzendaritza@beasain.net

Euskara ikasi, hobetu, erabili... nahi baduzu, zoaz Udal Euskaltegia otsailetik ekainera bitartean. Matrikulazio epea urtarrilaren 7tik 31ra bitartean zabalik izango duzu.

Astean 6 eta 10 orduko ikastaroak izango dituzu zai (mintzamina, idazmena, zuzenketak...). Tutorearen laguntza izango duzu zeure ikasprozesuan laguntzeko eta bideratzeko:
-Euskalduntze maila guztietan.
-Azterketak prestatzeko (Osakidetza, Administrazioa, 1. mailako eta 2. mailako eta 3. mailako azterketak...).

Autoikaskuntza sistema tutorearekin ere aukeran izango duzu:
-Multimedia sistemarekin; etxetik, euskaltegitik edota KZgunetik.
-Astean ordu bateko mintzasaioarekin.
-Astean ordu erdiko bakarkako tutoretzarekin (orientazio metodologikoa, ikasprozesuaren jarraipena,...).

laister berri

ANTZERKI GARAIA: LA FAMILIA DEL CHIVO FROILÁN



Urtero bezala 2008an ere antzerkiaz gozatzeko aukera paregabea izango dugu Antzerki Garaian. Hasiera emateko "La familia del chivo Froilán" antzezlanak izango dugu Usurbe Antzokian urtarrilaren 11n 22:15ean.

Gabonak dira, errepide bazterrean denboran galduriko etxea, erregearen diskurtsoa ikustea galarazten duen elurte izugarria!!!, eta ezer ez ospatzeko...

Anparok eta bere alaba Karmenek Sinluceseekin afalduko dute, bakoitzak bete ezinezko bere ametsen zain jarraitzen duen bitartean.

Baina iritsiko dena Juan Luis izango da, Madrildik datorren mutil liraina, elurtearen erdian galduta gelditu den "printzea". Gazteak kalotasuna oraindik existitzen dela ikusiko du eta beraiek beste bizimodu bat badela... Edo, agian ez.

laister berri

ESKOLA AGENDA 21

2006-2007 kurtoan Eskola Agenda 21aren barruan Beasaingo Ikastetxeetan hondakinen gaia landu da eta kurtsio amaieran ikasleek gaiari loturiko hainbat eskaera eta proposamen egin dizkie udalari. Alkatearen erantzunak entzun eta eskertu ondoren, hainbat gaiekiko dituzten desadostasun eta kezkek azaldu dituzte ikasleek. Era berean udalak erantzun bat eman die:

IKASLEEN ARDURAK

Errekaren garbiketarekin gustura aritu dira azken urteetan, nahiz eta partehartzaile gutxi izan eta hurrengo urteetan ez egiteko proposamenak ere entzun dituzten, egin beharreko zerbait dela eta kontzientzia dutenei behintzat garbiketa egiten jarraitzeko aukera ez kentzea eskatzen dute. Hala ere, ikasle batzuen ustez erreka garbiketa festa ondoren egitea ez da batere egokia, zabor arriskutsuak (botilak,...) topa baitaitezke.

Beraien ustez Ikastetxe bakoitzak duen **autobus zerbitzua** bateratzea da aukerarik zentzudunenena eta udalari hau koordinatzeko lagundu dezan eskatzen diote, ikastetxeen artean ez baitira ados jarzen.

Eguberrietan egiten den argi kontsumoa gutxitzea eskatzen dute, herri-
tar guztientzat gustuko neurria ez den amen.

Kontsumo Iraunkorra bultzatzea garrantzizkoa da.

Airearen kalitatea zaintzeko neurriak hartu beharko lituzke udalak, jarraipenerako "mataderoan" dagoen neurketa zentroa erabiliz. Hartu daitezkeen neurrien artean: trafikoa gutxitzea, enpresetako ke isuriaren kontrola,...

Ikastetxeetan hondakinak bereizteko ontziak dituzte, baina askotan herriko garbitzaileek banaturiko ontzien edukia bateratzen dute, eginiko lana ezeztatuz. Garbitzaileek hau kontutan hartu beharko lukete.

Kaleak garbitzeko oraindik ere sareko ura erabiltzen da, ur kontsumo izugarria suposatuz.

UDALAREN ERANTZUNA

Erreka Garbiketa egiten jarraituko da, ikasleekin adostuko delarik data egokiena. Interesgarria ikusten da oso ikasleek aldetik egon den jarrera eta herri-lako ekimenekiko duten interesa kontutan hartzekoa eta eskertzekoa da oso.

Ikastetxeetako autobus zerbitzu bateratu bat lortzeko egon behar den koordinazioa ikastetxeen artean konpondu beharko lukete.

Eguberrietan argiterian dagoen gastu nagusia instalakuntzan dago gehienbat, hala ere, aurtengo eguberrietan argi kontsumoa jaisteko saiakerak egingo ditu udalak.

Urtero kanpainaren bat egingo dela aurreikusten da.

Airearen kalitateak osasunean duen eraginak neurtzeko programa bat martxan da jada: Zumarragako erietxean haundun dauden 600 amen eta izango dituzten haurren osasunaren jarraipen bat egiten dabilta, airearen kalitatearen eraginak neurtu asmoz.

Trafikoari dagokionean datorren kurtsioan hainbat neurri hartzea espero da: OTA sistema ezartzea aztertzen dabilta,...


Garbitzaileei komunikatuko zaie, beraiek ere ontziak bereiztu ditzaten.

Laister piszinako ura erabiltzen hastekoak dira. Uraren kudeaketari dagokionez, esan, Zaldizurretatik datozen ur zikinak, nahiz eta erreka botatzen diren, kolektorerak bideratzeko obrak hasiko direla.

laister berri

HAUR ZINEA

WINKYREN ZALDIA



Urtarrilak 12,
larunbata,
17:00etan

Winky Wong Holandako hemiska batera bizitzera joan den neskatar bat da. Oso gogorra egingo zaio hizkuntza berri bat ikastea eta lagunak egitea. Baina zaldi bat aurkitzen du eta hau izango da bere lagun berria. Bere gurasoek, ordea, ez dute bere "zaletasun" berria gustuko izango. Winkyk San Nikolasen berri izaten du, gizon bizardun zahar horrek opariak banatzen dizkie haur txintxo guztiei. Winkyk badaki zer nahi duen harengandik: zaldi bat!!

NOCTURNA



Urtarrilak 19,
larunbata,
17:00etan

Izarren itzalaldia gaua erabateko iluntasunean uzteak gertu dago. Tim-ek, umezuztegi baten bizi den haur ikarakor batek, adonez egingo dio aurre bere beldurren fruitua den itzalari. Hau lortzeko, abentura zirraragarri batean murgilduko da, lokartzen garenean gaue-ro sortzen den Nocturna izeneko mundu paraleloan barrena. Bertan, izaki eta izate guztiak aurkituko ditu eta hauekin bidaia izugarria hasiko du bere izar maitea, emeskatatzen saiatzeko.

BETIZU ETA
URREZKO ZINTZARRIA



Urtarrilak 26,
larunbata,
17:00etan

Betizuak lagun baten bila abiatzen dira. Bidai horrek, "Urrezko Zintzarriaren" misterioan murgilduko gaitu: Urrezko Zintzarria jotzen duenak gainontzeko behiak, espezie osoa, bere menpean izatea lortuko du. Bilaketa horretan Betizuek zientzialari zoro batekin egingo dute topo: Mamu. Betizuekin lehiatuko da hura eskuratzearen. Bidai arriskutsu hau gainditzeko gure pertsonaiak batzen dituen adiskidetasuna derrigomezkoa izango da.

laister berri

GOIENIZ

LUCIO



Urtarrilak 10,
osteguna.
Zuzendariak: Aitor Arregi
eta Jose Mari Goenaga

Lucio Parisen bizi da, erretratuta. Testigu mutu izan da, askotan aktibo-ki parte hartu duelarik, XX. Mendeko bigarren erdiko gertaera historiko askotan. Dударик gabe, kolpenik handiena hirurogeigarren hamarkadako bigarren erdian eman zuen "euskal zorroa" edo "gaizkile on" goitzenak irabaziaz prenttsan. First National Bank (egun Citibank) etxeari 3.000 milioi pezeta lapurtu zizkion. Hauek guztiak egin arren, hilabete gutxi egin ditu kartzelan.

CUANDO NACES YA NO
PUEDES ESCONCERTE



Urtarrilak 17,
osteguna.
Zuzendaria:
Marco Tullio Giordana

Maria Pace Ottieriren liburuan oinarrituta dago. Istorioa Sandroren inguruan, familia Brescian duen hamabi urteko gaztearen inguruan da. Aitak, Brunok, fabrika bat dauka eta amak, Ludiak, fabrika kudeatzen du. Mediterra-neotik gurutzeontzian doazela Sandro, bela nagusitik behera eroriko da gauean eta ez dute aurkitzen. Bel-durtunik, itotzat ematen dute. Baina gaztea bizirik dago. Inmigrante ilegalez beheriko ontzi batek ikusiko du eta gaztea jasoko dute.

NO SOS UOS
SOY YO



Urtarrilak 31,
osteguna.
Zuzendaria:
Juan Taratuto

Komedia honek Jabier eta Mariaren istorioa kontatzen digu. Jabier kirurgialari eta, aisialdian disk-jokeya, da eta Mariarekin Estatu Batuetara joan ahal izateko green-carda lortzeko baino ez da ezkontzen. Mariak kontaktuak egiteko aurretik egingo du bidai, baina bitarte horretan Jabierrek Julia ezagutuko du.